

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Udalan hutsik dauden lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketa. Kultura Etxeko ardura- dun teknikoa, 6006 kodea duen lanpostuaren ebazpena

Amaitu egin da Laudioko Udalan Kultura Etxeko arduradun teknikoa, 6006 kodea duen lanpostuak betetzeko, merezimendu-lehiaketa. Lehiaketa horren deialdia 2019ko azaroaren 5eko 2675 zenbakiko Alkate-udalburuaren dekretu bidez egin zen eta 2019ko azaroaren 27ko 137 zenbakiko duen ALHAOn argitaratu zen. Ondorioz, 2020ko martxoaren 4ko Alkate-udalburuaren 450 zk. duen Dekretu bidez lanpostu hori esleitu egin zaio Jose Javier Ramirez Rojo karrerako funtzionarioari.

Atxikipen-lanpostuko kargua ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliadunetan utzi beharko da.

Lanpostu berriaz jabetzeko data kargua utzi eta hurrengo eguna izango da.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez dakioko, hilabeteko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik edota hurrengo egunetik aurrera, ebazpena eman duen organoari berari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aukerako berraztertze errekurtsorik jartzen ez bada, bide judiziala irekiko da, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da txandaka egokituko den Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik edota hurrengo egunetik aurrera.

Publiko egiten dena, indarrean dagoen legedia betez.

Laudio, 2020ko martxoaren 30a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE